

LEZOKO SANTO KRISTOREN ELEIZACHOA.¹



(ON KARLOS URIARTE JAUNARI)

I.

Ez det uste elizacho famatuagorik ote dan Gipúzkoa guztian Lezoko Kristorena baño: antziñatikan berak dauka alako gauz aundi bat beregan, non ez dan izango kristaurikan gure artian,, joan ta etorri bat egiñ ez diyonik.

Bein batian an gertatzen zana obiagoa zan ikusteko esateko baño. Ordu ezkeru gelditu zitzaidan alako oroitx bat nere barrenan, oraindik etzaitana banatu iñoiz nere gogotikan.

Neguko igande bat zan, bañan egiten zuben egualdiyagatik, ez zirudien onlako eguna zanik.

Goiz artan eguzkiak ez zuben erakusten iñondik bere errañurikan, odoiak beren urdintasun alayaren ordez agertzen ziran guztiz illunak noizian beingo chimisten argitasunak gorriturik oso; eguna ikaragarria azaltzen zan.

Ontan bederatziterdiyak jotzen zituben eleizak, asiyera emanik meza nausirako ezkill soñubak, aiziaren indarrak banatubaz aben otsa.

¡Nork daki nondik aditzen zuten!

Eguna ikaragarria zijoan, penaz beterik bazterrak eta aiziak eraman nayeay bezela iguru danak.

(1) Leyenda premiada con un RAMO DE LAUREL DE PLATA, en los juegos florales euskaros celebrados en esta Ciudad en 1889. (Véasepág.564).

Ni negoen eleizako atian, meza nausiya asi-zai; nere ondoan ikusten nuben gizon bat; jazten zuben chamarra gorriya sar samarra, gerriko churi-urdiñ zirpillatuba eta belaunerañoko oñetako sendoak, berak zarra ematen zuben, makurra urtien meriyoz, bañan arpegi ederra agertzen zitzayon, garrondo aldetikan jechiyaz ille zuri-zuria.

Etzan dudarik; arrantzalia zan edo izandua.

Aiton arrek, zerbait zekarren gogoan eta zekarren gauza aundiya.

Ni negoen beregana abiyatu nayean, zerbait galdetzeko asmoan, bañan barrenak esaten ziran ezetz.

Egualdiyak etzuben onera ematen iñondik, ezkillia jo tajo jendia bildu nayan mezarako, bazetorren alderatzen; bañan ni ez negoen nere onetan, gizon arri zér zuen galde artian, zergatik igartzen niyon pena andiren bat; gizon arrek zerbait nai zuben, nonbaitetikan etorri zan eleiza artara, lan aundi nekosuakiñ, eta nere gogo guztiyak ematen ziran berarekiñ izketa bat egiteko; jarri nintzan bada zerbait esateko asmoan, bañan gertatzen dana bati zerbait gogoan sartzen zayonean, zalla izatea artatik ateratzia, eta neri ori pasatzen zitzaidan galdetu naiagatik, galarazi ez nuben nai gizon arren pentsamentuba, eta onla neguela meza nausiya astentzan eta jendia sartu zan barrena; aitona ere bai, choko batian belaunikaturik nekez.

II.

Meza ondoren atera nintzan eleizatik kanpora, zeruba azaltzen zan urdintsu itsaso aldetik; atertu zuben, egualdiya bere onetara etorririk.

Alako batean urruti-samarrera begiratzen det eta zér izango zan nere ikus-gaya, nón ikusten detan gizon pilla bat alderatuaz Lezo aldera; bat batean abiyatu nitzan ayen bidera, jakiteko asmoan zér otezan, eta, ikusten ditut arrantzaleak zetozela, guztiyak oñutsik eta geyenak erdi jantziyak. Beriala igarri noan zér zan, ala ikusirik: ¡Promesa bat!

—¡Zér dakartzute mutillak! oju egin niyoten indarrez, lenbailen jakiteko asmoan ayen gestaera.

—¡A! jauna!—alderatu zitzaidan ayetako bat eranzunaz—Guaz, gure Santo Kristo Lezokoaren atietara, lenbailen allegatu naiean. ¡Berari eskerrak ematera biotz guztitik, ¡bai!

—Eta ¿jakin aleike zuben gertaera?—ostera esan nion.

—Bai jauna, bai: orra bada, gaur goizian egun-sentia baño lenago, ateratzen giñan treñeroko lagun guztiak geren ontzian Pasaitikan, gure erriya, arrantzará!; oraindik etzuben zentzurikan egunak argitzeko, bañan izar banaka batzuben diz-dizatzen zu ten zeruban, eta abiyatu giñan itsaso barrenara, umore onian, arraunian gogor egiñaz, lenago alderatzeko asmoan bertaratu bear genduben lekura.

Asten gera sariak botatzen, eta asi bagiñan asi giñan, senti genuben alako aise motel bat ollaska banaka batzubekiñ, baña gauza piska arrenгатikan ez genuben uste okerragorik eta aguanta egin genduben bertan, zergatik esan gendubena, onenbeste bidean etorri ezkeru ez biurtu nai echera esku utsik eta ¡Kristoren pasiyoa!

—Zaude, zaude piska bat—esan nion ikusirik guztiz larritzen zala:—lenbizi artu zagun churrutacho bana, zure gorputzeko otzikara ori ateratzen ote degun.—Ez jauna, ez:—segiran eranzun ziran. —Lenbiziko dakagun asmoa da, Santo Kristoren-gana bertaratzia, zergatik Arren-gatik nere aita zar bakarra, ez da gelditu gaur semerikan gabe...!

Au esanaz barrendik atera zitzayon antsi batek galaazi ziyon itza egitia.

—Beraz ¿guztiz gaizki ibilliak izandu zerate?

—¡Gaizki!—eranzun ziran bat batean, arri-arriturikan—lenbizi zirudien aize motela jarri zan arroturik puskatu nayan ontzia; bagak berriz asi ziran mendi zuriak ziruritela, odoiak ere beren zaparrarekiñ guztia estalirikan eta an ikusiko du gizona estu eta larri; iñondik aditzen ez, iñondik laguntzik gabe, treñeroa ol koskor baten gisa, gu berriz non nai toletetan edo killan, alkar ez giñala ikusten, noizian beifñ azaldubaz chimist zorrotzen argi tartean, ¡a! ura pena! ¡o zér simiña! Galdurik arkitzen giñan, ni bertatik jarri nintzan ondo Jaungoikoarekiñ, bañan gauza gogorra gelditzen zitzaidan gogoan.—Ikusirik gizon arren negarra eta guztizko nekea galdetu nion, aurchu bat laztanduko banuben bezela.—¿Zér zenakazun gogoan bada, zér?

—¿Zér? Nere Aita!

—Ez datorkit itzik gogora adiarazitzeko zér atsekabea eragiñ-azo ziran nere gorputzean itz samur arrek eta bitarte batean isillilik arkitu giñan.

—Andik puska batera,—abiyatu zan gizona esanaz, arritasun batetik ateratzen geranian bezela,—indarrak laja ginduzten baka-
rrik, dar-dar gorputz guztia genekagun otzarekiñ, eriotza gure gaiñ
zetorren eta zêr izango zan gure atsegiña, ¡o Jaungoiko maitea!
non egiten du egualdiyak jira eta bat batean *kalma!*..... jiratu
genuben ontzia alde onera, sartubaz barrenen, ez dakit nola, (nun-
bait Jaunak laguntzen zigun), zergatik bestela gu iñola ez giñan
gauza! Eta ala, ala, ikusi genduben lagun danok alkar bizirik
geundela eta ordaban ez dakit poza edo pena sentitzen genuben,
zergatik konturik ez genekagun. Andik denbora labur batean zer
izango zan gure bigarrengo atsegiña, non sentitzen degun Lezoko
Santo Kristo-ren eleizako ezkill soñuba doi doian, bañan beriala
igarri genuben meza nagusikoa zala, eta ordubanchen belaunikatu
giñan gure Jaungoikoari eskerrak emanaz, promesa egiñaz, lenbi-
ziko lurra jotzen genuben lekutikan juango giñala denok geunden
bezela Bere oñai muñ egitera....

—Eta dana galdurik, noski, norbaitek ekarri zaituzte legorrera.—

—Bai, jauna, bai—eranzun ziran zerbait erneturikan—bapore
batek ekarri gaitu Pasairano.—

Ordurako alderatu giñan danok, arrantzaleak ta ni eleizako ate-
atietaraño, eta ordubanchen ere irtetzen zan barrendik, len ikusi
nuben aiton chamar gorriduna, arrasta-arrastaka. Eta nere arran-
tzalea guztiz larritasun aundiarekiñ, bat batean lastandu zuben bere
besoetan, sekulako atsegiñ gozoarekiñ.

¡Aita-semeak ziran!

FRANZISKO LOPEZ ETA ALEN.

